**LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA**

EBAZPENA, 1999ko irailaren 9koa, Ingurugiro Baliabideen zuzendariarena, «XXI toki agendek Euskadin duten garapen-maila ebaluatzeko eta gida praktiko bat gertatzeko lanak» burutzeko lehiaketarako deia egiten duena. 16117

## Pribatuen Iragarpenak

**SANEAMIENTOS COBAÑO SOCIEDAD COOPERATIVA**

IRAGARPENA, Saneamientos Cobaño, Soc. Coop. desegin dela jakinarazteko. 16118

**DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE**

RESOLUCIÓN de 9 de septiembre de 1999, del Director de Recursos Ambientales, por la que se acuerda convocar Concurso para la realización de los trabajos de «Evaluación del nivel de desarrollo en Euskadi de las agendas locales XXI y elaboración de guía práctica». 16117

## Anuncios Particulares

**SANEAMIENTOS COBAÑO SOCIEDAD COOPERATIVA**

ANUNCIO de disolución de Saneamientos Cobaño, Soc. Coop. 16118

# Xedapen Orokorrak

## OSASUN SAILA

### Zk-4006

319/1999 DEKRETUA, abuztuaren 31koa, Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseilua sortzen duena eta prestakuntza-mota hori kreditatzeko sistema bat arautzen duena.

Osasun-zientzietan gertatzen diren aurrerapen zientifiko eta teknikoek badute beren eragina asistentzia sanitarioaren eremuan, eta eremu horretako oinarri funtsezkoetako bat, hain zuzen ere, profesional sanitarioen prestakuntza da.

Horregatik, profesional sanitarioen prestakuntzan ez dira aski unibertsitateko ikasketak, ezta gerora egiten den prestakuntza espezializatua ere; gehiago behar da, eta hori etengabeko eguneratze jarduerek ematen dute.

Gauzak horrela ikusita, etengabeko prestakuntza ez da profesionalen titulu-pilaketa hutsa, eta ezin da beraz nahitaezkotzat jo, ezpada ere borondatezkotzat. Gainera, nola eta prestakuntza arautu gabea den, edozein agentek —publikok nahiz pribatuk— du aukera prestakuntza-sistemak ezartzeko, horien betebeharrak ezartzeko eta bere kasa kreditazioak emateko.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### N°-4006

DECRETO 319/1999, de 31 de agosto, por el que se crea el Consejo Vasco de Formación Continuada de las Profesiones Sanitarias y se regula un sistema para su acreditación.

El progreso científico y técnico que se produce cada vez más rápidamente en las ciencias de la salud tiene una influencia decisiva en la prestación de la asistencia sanitaria, uno de cuyos factores fundamentales es la formación de los profesionales sanitarios.

Por ello, dicha formación no ha de limitarse a los estudios universitarios, completados, en su caso, con la formación especializada, sino que debe prolongarse con actividades de actualización continuadas.

En este marco, la formación continuada no constituye una retitulación de los profesionales que la realizan, por lo que no puede ser considerada como obligatoria, sino de carácter voluntario. Por otro lado, al no tener carácter reglado, cualquier agente, público o privado, puede establecer sistemas de formación, regular sus requisitos y otorgar acreditaciones autónomamente.

Eta horretantxe jarri behar dute administrazio publikoek beren ardura, hots, profesional sanitarioei eskaintzen zaizkien etengabeko prestakuntzako jardueren kalitatea zaintzean.

Horri begira sortzen da Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseilua. Kontseiluak, berezko eskumenez gainera (prestakuntza-sistemen eraginkortasuna hobetzea, analizatzea eta ebaluatzea, eta lehentasunezko kreditazio-arloak proposatzea), borondatezko kreditazio-sistema bat ezarriko du, Osasun Sistema Nazional osoan balio izango duena.

Kreditazio sistema horrek aurrekari bat du, alegia, Autonomia Erkidegoek, Osasun eta Kontsumo Ministerioak eta Hezkuntza eta Kultura Ministerioak lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntzari buruz 1997ko abenduaren 15ean sinaturiko Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluaren Arloko Batzarraren Hitzarmena.

Hitzarmen horren indarrez (Hitzarmena dekretu honen eranskinean dago), eta alor horretan eskumena duten administrazio publiko guztien lankidetza eta elkarlan eraginkorraren izenean, borondatezko kreditazio-sistema bat ezartzen da prestakuntza-jarduerak ematen dituzten erakundeentzat eta lanbideen eguneratze ziurtagirientzat.

Esandako guztiagatik, apirilaren 25eko Sanitateko 14/1986 Lege Orokorraren 18.14 artikuluan eta ekainaren 26ko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legearen 31. artikuluan ezarritakoaren arabera, elkargoei eta eragindako beste erakunde eta organoei entzun ondoren, Osasun sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1999ko abuztuaren 31n aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Arautu nahi den alorra.

Dekretu honen bidez Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseilua sortzen da eta etengabeko prestakuntza kreditatzeko sistema bat, borondatezkoa, arautzen da.

*2. artikulua.–* Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluaren egitura.

Kontseilua Osasun Plangintza eta Antolamenduko Sailburuordetzari atxikiko zaio, eta honako organoak izango ditu:

a) Osokoa.

b) Batzorde Iraunkorra.

c) Ebaluazio Batzordea.

*3. artikulua.–* Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluaren Osokoaren osaera.

Y es en este preciso ámbito en el que las Administraciones Públicas tienen que ejercer la responsabilidad de asegurar la calidad de las actividades de formación continuada que son ofertadas a los distintos profesionales sanitarios.

Con esta finalidad fundamental se crea el Consejo Vasco de Formación Continuada de las Profesiones Sanitarias, el cual, además de tener atribuciones en relación con la eficiencia, análisis y evaluación de sistemas de formación y con la propuesta de áreas de acreditación preferente, también pondrá en práctica un sistema de acreditación voluntario, con validez para todo el Sistema Nacional de Salud.

Este sistema de acreditación tiene su antecedente en el Convenio de Conferencia Sectorial del Consejo Interterritorial del Sistema Nacional de Salud, sobre formación continuada de las profesiones sanitarias, suscrito por las Comunidades Autónomas, el Ministerio de Sanidad y Consumo y el Ministerio de Educación y Cultura, con fecha 15 de diciembre de 1997.

Por virtud del citado Convenio, que se publica como Anexo al presente Decreto, y en base a la coordinación y la colaboración eficaz entre todas las Administraciones Públicas con competencia en la materia, se establece un sistema voluntario de acreditación de instituciones proveedoras, de actividades de formación y de emisión de certificaciones de actualización profesional.

Por todo lo expuesto, de acuerdo con lo establecido en el artículo 18.14 de la Ley 14/1986, de 25 de abril, General de Sanidad, así como en el artículo 31 de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, oídos los Colegios y otras entidades y órganos afectados, a propuesta del Consejero de Sanidad, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 31 de agosto de 1999,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto de regulación.

Mediante el presente Decreto se crea el Consejo Vasco de Formación Continuada de las Profesiones Sanitarias y se regula un sistema de acreditación de la formación continuada, de carácter voluntario.

*Artículo 2.–* Estructura del Consejo Vasco de Formación Continuada de las Profesiones Sanitarias.

El Consejo, que se adscribe a la Viceconsejería de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad, se estructura en los siguientes órganos:

a) Pleno.

b) Comisión Permanente.

c) Comité de Evaluación.

*Artículo 3.–* Composición del Pleno del Consejo Vasco de Formación Continuada de las Profesiones Sanitarias.

1.– Osasun sailburuak izendatuko ditu Kontseiluko kide titularrak eta ordezkoak, artikulu honetan xedatutakoaren arabera. Izendapenak bi urte iraungo du, eta gero berritu ahal izango da.

2.– Honako hauek izango dira Kontseiluaren Osokoko kideak:

– Lehendakaria: Osasun Sailaren Osasun Plangintza eta Antolamenduko sailburuordea.

– Bokalak:

– Osasun Sailaren Osasun Antolamenduko zuzendaria.

– Bokal bat, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Medikuen Elkargoek proposatuta.

– Bokal bat, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Farmazilarien Elkargoek proposatuta.

– Bokal bat, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Erizaintzako Elkargoek proposatuta.

– Bokal bat, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Odonto-Estomatologiako Elkargoek proposatuta.

– Bokal bat, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Albaitarien Elkargoek proposatuta.

– Bokal bat, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Osasun Publikoko Zuzendaritzak proposatuta.

– Bost bokal, Osakidetzak proposatuta, honela banatuta: bi atentzio espezializatukoak, bat lehen mailako atentziokoa, eta bi erakunde zentralekoak.

– Bokal bat, IVAP/Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proposatuta.

– Bokal bat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proposatuta.

– Bokal bat, UPV/Euskal Herriko Unibertsitateak proposatuta.

– Itzal handiko hiru profesional sanitario, Osasun Sailaren Osasun Plangintza eta Antolamenduko sailburuordeak proposatuta.

– Bi teknikari, Osasun Sailaren Osasun Antolamenduko Zuzendaritzak proposatuta; horietako bat Kontseiluaren Osokoko idazkari izango da.

3.– Kontseiluaren Osokoak lehendakariorde bat izendatuko du bertako kideen artean eta barne-araudi bat onartu ahal izango du.

4.– Kontseiluaren Osokoan ordezkatuta dauden lanbideez beste lanbide sanitarioei dagozkien programa edo jarduera berariazkoak aztertzen direnean, kasuan kasuko lanbidearen ordezkaritza nagusia duen elkargo edo erakunde profesionaleko ordezkariek hartuko dute parte, hitzarekin eta botoarekin, lehendakariak gonbidatuta.

1.– El Consejero de Sanidad nombrará a los miembros titulares y suplentes del Pleno del Consejo, por un período renovable de dos años, de conformidad con lo señalado en el presente artículo.

2.– El Pleno del Consejo estará compuesto por los siguientes miembros:

– Presidente: Viceconsejero de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad.

– Vocales:

– El Director de Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad.

– Uno a propuesta de los Colegios de Médicos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

– Uno a propuesta de los Colegios de Farmacéuticos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

– Uno a propuesta de los Colegios de Enfermería de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

– Uno a propuesta de los Colegios de Odonto-Estomatología de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

– Uno a propuesta de los Colegios de Veterinarios de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

– Uno a propuesta de la Dirección de Salud Pública del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

– Cinco a propuesta del Ente Público Osakidetza / Servicio vasco de salud, con la siguiente distribución: dos de atención especializada, uno de atención primaria y dos de la organización central.

– Uno a propuesta del Instituto Vasco de Administración Pública / HAEE.

– Uno a propuesta del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco.

– Uno a propuesta de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

– Tres profesionales sanitarios de reconocido prestigio, propuestos por el Viceconsejero de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad.

– Dos técnicos a propuesta de la Dirección de Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad, uno de los cuales actuará como Secretario del Pleno del Consejo.

3.– El Pleno del Consejo designará de entre sus miembros un Vicepresidente y podrá aprobar su propio Reglamento de funcionamiento interno.

4.– Cuando se traten programas o actuaciones específicas relativas a profesiones sanitarias distintas de las representadas, se incorporarán al Pleno del Consejo, por invitación de su Presidente, con voz y voto, un representante del Colegio o, en su defecto, Asociación profesional más representativa del colectivo profesional de que se trate.

*4. artikulua.–* Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren osaera.

1.– Kontseiluaren Osokoak bertako kide batzuekin Batzorde Iraunkorra izendatuko du, honakookin alegia:

– Lehendakaria: Osasun Antolamenduko zuzendaria.

– Bederatzi bokal:

– Medikuen Elkargoek proposatutakoa.

– Farmazilarien Elkargoek proposatutakoa.

– Erizaintzako Elkargoek proposatutakoa.

– Bi, Osakidetzako ordezkarien aldetik.

– IVAP / Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proposatutakoa.

– UPV / Euskal Herriko Unibertsitateak proposatutakoa.

– Osasun Sailaren Osasun Antolamenduko Zuzendaritzak proposatutako biak; horietako bat, Kontseiluaren Osokoko idazkari izendatzen dena, Batzorde Iraunkorreko idazkari ere izango da.

2.– Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak lehendakariorde bat izendatuko du bertako kideen artean eta barne-araudi bat onartu ahal izango du.

*5. artikulua.–* Ebaluazio Batzordearen osaera.

1.– Batzorde Iraunkorrak izendatuko ditu Ebaluazio Batzordeko kideak, honakoak alegia:

– Lehendakaria: Kontseiluaren Osokoko kide bat izango da.

– Lau bokal: hiru, etengabeko prestakuntzaren ebaluazioan adituak diren pertsonen artetik aukeratuak —Osokoko kideak izan zein ez izan—, eta bestea, Kontseiluaren Osokoko idazkaria, zein Ebaluazio Batzordeko idazkari ere izango den.

2.– Ebaluazio Batzordeak kanpoko ebaluatzaileen laguntza jaso ahalko du bere zereginetan. Ebaluatzaile horiek alorrean alorreko adituen artetik aukeratuko dira, eta ezin izango dira Osokoko kideak izan.

*6. artikulua.–* Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluaren eginkizunak.

1.– Hauek izango dira Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluaren eginkizunak:

a) Ekimenak eta jarduerak proposatzea lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntzako programak hobetzeko.

*Artículo 4.–* Composición de la Comisión Permanente del Consejo Vasco de Formación Continuada de las Profesiones Sanitarias.

1.– El Pleno del Consejo designará de entre sus miembros una Comisión Permanente, de acuerdo con la siguiente composición:

– Presidente: Director de Ordenación Sanitaria.

– Nueve vocales:

– El miembro propuesto por los Colegios de Médicos.

– El miembro propuesto por los Colegios de Farmacéuticos.

– El miembro propuesto por los Colegios de Enfermería.

– Dos de los representantes de Osakidetza / Servicio vasco de salud.

– El miembro propuesto por el Instituto Vasco de Administración Pública / HAEE.

– El miembro propuesto por la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

– Los dos representantes de la Dirección de Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad. Uno de los cuales, el que sea designado como Secretario del Pleno, lo será también de la Comisión Permanente.

2.– La Comisión Permanente del Consejo designará de entre sus miembros un Vicepresidente y podrá aprobar su propio Reglamento de funcionamiento interno.

*Artículo 5.–* Composición del Comité de Evaluación.

1.– La Comisión Permanente designará a los miembros del Comité de Evaluación, de acuerdo con la siguiente composición:

– Presidente: Será uno de los miembros del Pleno del Consejo.

– Cuatro vocales de los que tres serán elegidos entre expertos en evaluación de la formación continuada, sean o no miembros del Pleno del Consejo, y el Secretario del Pleno del Consejo que, a su vez, lo será del Comité de Evaluación.

2.– El Comité de Evaluación, para ser asistido en la realización de las evaluaciones, podrá designar evaluadores externos entre titulados con acreditada experiencia profesional o docente en las materias objeto de evaluación. Dichos evaluadores externos no tendrán la condición de miembros del Consejo.

*Artículo 6.–* Funciones del Consejo Vasco de Formación Continuada de las Profesiones Sanitarias.

1.– Corresponden al Pleno del Consejo las siguientes funciones:

a) Proponer iniciativas y actuaciones que mejoren el grado de eficiencia de los programas de Formación Continuada de las profesiones sanitarias.

b) Lanbide sanitarioen espezialitate bakoitzean, proposamenak ematea garapenaren eta kreditazioaren aldetik etengabeko prestakuntzaren lehentasunezko alorrak eta eduki materialak definitzeko. Baita ere, lanbide bateko espezialitate bat baino gehiago hartzen dituztenena edo lanbide bat baino gehiago hartzen dituztenena.

c) Kreditatutako zentroen eta jardueren ikuskapenari eta auditoriari buruzko arautegia onartzea.

d) Lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntzaren ikerketa bultzatuko duten hezkuntza-bide egokienak aztertzea eta horretarako ekimenak sustatzea.

e) Lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntzaren kreditazio-sistema ebaluatzea.

f) Lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntzaren alorrean Osasun Sailak eskatzen dizkion azterketak, txostenak eta bestelako jarduerak burutzea.

2.– Hauek izango dira Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren eginkizunak:

a) Titularren eskariz, kreditazioa ematea irakaskuntzako zentro edo unitateei, edo sanitatekoei, administratiboei edo bestelakoei, etengabeko prestakuntza sanitarioko jarduerak eman ditzaten, edo hala badagokio, prestakuntzako jarduerak kredita ditzaten.

b) Pertsona edo erakunde antolatzaileen eskariz, kreditu-ordutan baloratzea eta kreditatzea prestakuntzako jarduerak.

c) Lanbideen eguneratze ziurtagiriak ematea hala eskatzen duten profesionalei, baldin kreditu-ordu kopuru nahikoa eta bestelako baldintzak betetzen badituzte. Ziurtagiriok balio-epe bat izango dute.

d) Gero Kontseiluaren Osokoak onartu behar dituen plan, programa eta gainerako proposamenak prestatzea eta erredaktatzea.

Artikulu honetako a), b) eta c) idatz-zatietan Batzorde Iraunkorrari esleitzen zaizkion eskumenak Ebaluazio Batzordeari eskualdatu ahal zaizkio, horri buruzko erabaki baten bitartez.

3.– Hauek izango dira Kontseiluaren Ebaluazio Batzordearen eginkizunak:

a) Kreditazioak emateko beharrezkoak diren ebaluazioak egitea, bai zuzenean bai kanpoko ebaluatzaileen bidez.

b) Batzorde Iraunkorrari kreditazio-proposamenak aurkeztea; eta, Batzorde Iraunkorrak eginkizun hori eskuordetu dion kasuetan, kreditazio-ebazpenak ematea.

Ebaluazio Batzordeak bere lanaren berri eman behar ko dio Batzorde Iraunkorrari, azken horrek ezarritako maiztasunez.

b) Proponer la definición de las áreas y contenidos materiales de desarrollo y acreditación preferente para la formación continuada en cada una de las distintas especialidades y profesiones sanitarias, así como las que abarquen a distintas especialidades de una misma profesión o a varias profesiones.

c) Aprobar las directrices relativas a la inspección y auditoría de los centros y actividades acreditados.

d) Analizar los métodos educativos más adecuados y proponer iniciativas que favorezcan el fomento de las actividades de investigación sobre la formación continuada de las profesiones sanitarias.

e) Realizar la evaluación del sistema de acreditación de la formación continuada de las profesiones sanitarias.

f) Realizar estudios, informes y cualquier otra actuación que le sea encomendada por el Departamento de Sanidad en relación con la formación continuada de las profesiones sanitarias.

2.– Corresponden a la Comisión Permanente del Consejo las siguientes atribuciones:

a) Acreditar los centros o unidades docentes, sanitarios o administrativos, u otras entidades, a solicitud de la entidad titular de los mismos, para proveer actividades de formación sanitaria continuada así como, en su caso, para acreditar actividades de formación.

b) Acreditar y valorar en horas-crédito actividades concretas de formación, a solicitud de las personas o entidades organizadoras de las mismas.

c) Emitir un certificado de actualización profesional, de validez temporal, a favor de los profesionales que lo soliciten y reúnan los requisitos de horas-crédito y demás que se determinen.

d) Elaborar y redactar los planes y proyectos y demás propuestas para su posterior aprobación por el pleno del Consejo.

El ejercicio de las atribuciones de la Comisión Permanente recogidas en los apartados a), b) y c) del presente artículo 6.2 podrá ser delegado en el Comité de Evaluación, mediante la adopción del correspondiente acuerdo.

3.– Corresponden al Comité de Evaluación del Consejo las siguientes funciones:

a) Realizar las evaluaciones necesarias para la acreditación, directamente o mediante la asignación de evaluadores externos.

b) Elevar a la Comisión Permanente las correspondientes propuestas de acreditación o dictar las propias resoluciones de acreditación, cuando esta función le haya sido delegada por la Comisión Permanente del Consejo.

El Comité de Evaluación dará cuenta de sus trabajos a la Comisión Permanente, con la periodicidad que ésta señale.

4.– Kontseiluaren organoek aintzat hartuko dituzte, euren jardunean, etengabeko prestakuntzaren alorrean Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo eskudunek, Osakidetzakoek edo elkargo profesionalek edo sektoreko erakunde profesionalek egiten dituzten jarduerak eta proposamenak.

Halaber, Kontseiluak kontuan hartuko ditu zuzenean edo zeharka etengabeko prestakuntza sanitarioaren alorrean diharduten hainbat erakundek (Unibertsitatea, zientzia akademiak edo elkarteak, sindikatuak eta abar) egiten dituzten proposamenak.

*7. artikulua.–* Lan-taldeak.

Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak egoki iritzitako lan-taldeak eratu ahalko ditu, Kontseiluaren Osokoak lehentasunezkotzat definituriko jarduerak gauzatzeko.

Osasun Plangintza eta Antolamenduko sailburuordeak izendatuko ditu lan-taldeetako kideak, Batzorde Iraunkorraren proposamenez.

Kontseiluko kideak ez ezik, aztergaian aditua den beste edozein pertsona ere egon daiteke lan-taldeetan, non eta bere ekarpenak eta lanak interesgarritzat jotzen diren.

*8. artikulua.–* Kreditazioen irizpideak eta baliozkotasuna.

Kreditazioak Osasun Sistema Nazionalaren Etengabeko Prestakuntzako Batzorde Nazionalak ezarritako irizpide orokor eta gutxienekoen arabera emango dira, halaxe xedatzen du eta lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntzari buruzko Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluaren Arloko Batzarraren Hitzarmenak, 1997ko abenduaren 15ean sinaturikoak.

Jardueren ebaluazioa independentea eta banan-banakoa izango da, Ebaluazio Batzordeak ezartzen dituen ebaluazio-proposamenen bidez.

Dekretu honetan xedatutakoaren arabera ematen diren kreditazioek Osasun Sistema Nazionalak hartzen duen eremu osoan izango dute balioa.

*9. artikulua.–* Administrazio errekurtsoak eta araudi aplikagarria.

1.– Etengabeko Prestakuntzako Kontseiluko organoek ematen dituzten ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Osasun sailburuari ebazpenak jakinarazten direnetik hilabeteko epean, hala dago eta xedatuta Herri Administrazioen Araubide

4.– Para el desarrollo de sus funciones, los distintos órganos del Consejo tomarán en consideración las actuaciones y propuestas que, en materia de formación continuada, realicen o desarrollen los órganos competentes de la Administración General de la Comunidad Autónoma, Osakidetza / Servicio vasco de salud, los Colegios Profesionales y, en su caso, las Asociaciones Profesionales más representativas del sector.

Así mismo, el Consejo estudiará las propuestas que efectúen la Universidad, las Academias y Sociedades Científicas, las Organizaciones Sindicales y cuantas entidades, organismos e instituciones actúen, directa o indirectamente, en el campo de la formación sanitaria continuada.

*Artículo 7.–* Grupos de trabajo.

La Comisión Permanente del Consejo podrá constituir cuantos grupos de trabajo estime oportunos para el desarrollo de las actuaciones preferentes que el Pleno del Consejo defina.

La designación de los miembros de los grupos de trabajo se realizará por el Viceconsejero de Planificación y Ordenación Sanitaria, a propuesta de dicha Comisión.

Además de los miembros del Consejo, podrán formar parte de estos grupos de trabajo cualquier otra persona de reconocida competencia en el tema a tratar, cuyas aportaciones y trabajos sean considerados de interés.

*Artículo 8.–* Criterios y validez de las acreditaciones.

De conformidad con lo dispuesto en el Convenio de Conferencia Sectorial del Consejo Interterritorial del Sistema Nacional de Salud sobre formación continuada de las profesiones sanitarias, firmado el día 15 de diciembre de 1997, al que se refiere la Disposición Adicional del presente Decreto, las acreditaciones se emitirán de conformidad con los criterios generales, comunes y mínimos establecidos por la Comisión Nacional de Formación Continuada del Sistema Nacional de Salud.

Las evaluaciones de actividades se llevarán a cabo de forma independiente e individualizada, mediante el número de propuestas de evaluación que determine el Comité de Evaluación.

Las acreditaciones emitidas de conformidad con lo dispuesto en el presente Decreto tendrán validez para todo el ámbito del citado Sistema Nacional de Salud.

*Artículo 9.–* Recursos administrativos y normativa aplicable.

1.– Las resoluciones dictadas por los órganos del Consejo de Formación Continuada serán recurribles en alzada, en su caso, en el plazo de 1 mes desde su notificación, ante el Consejero de Sanidad, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 107 y siguientes de la

Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluan eta hurrengoetan, lege hori aldatzen duen 4/1999 Legearen idazkeran.

2.– Xedapen honetan jasotzen ez diren puntuei dagokienez, Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluak 30/1992 Legean kide anitzeko organoen gainean ezarritakoari men egin beharko dio.

*10. artikulua.–* Dietak eta administrazio euskarria.

1.– Xedapen honetan arautzen diren Euskal Kontseiluko edozein organotako kide izateak ez dakar inolako ordainsaririk jasotzerik, salbu eta zerbitzuagatik eman beharrekoak arautzen dituzten berariazko arautegietan jasotzen diren dieta eta kalte-ordainak.

Kanpoko ebaluatzaileek bidezko ordainsariak jasoko dituzte, indarrean dauden xedapenetan ezarritakoaren arabera.

2.– Osasun Sailak jarriko du Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluak bere funtzionamendurako behar duen administrazio euskarria.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa.–* Dekretu honen 6.2 artikuluko a) eta c) idatz-zatietan aipatzen diren erakundeen kreditazioak eta lanbideen eguneratze ziurtagiriak emateko, beharrezko betebeharrak eta prozedurak arautu beharko dira, aldez aurretik, Osasun sailburuaren agindu bidez.

*Bigarrena.–* Dekretu honetan Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluko organoei esleitzen zaizkien eginkizunek ez dituzte ezertan aldatzen lanbide heziketaren alorrean beste organo edo erakunde eskudunek dituzten funtzioak.

*Hirugarrena.–* Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 8.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, dekretu honi erantsita lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntzari buruz 1997ko abenduaren 15ean sinaturiko Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluaren Arloko Batzarraren Hitzarmena argitaratzen da. Hitzarmen hori Osasun eta Kontsumo ministroak, Hezkuntza eta Kultura ministroak eta Autonomia Erkidegoetako Osasun kontseilariek (Andaluzia, Aragoi, Asturias, Balearrak, Kantabria, Katalunia, Kanariak, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Galizia, Extremadura, Madril, Murtzia, Nafarroa, Euskadi, Valentzia eta Errioxa) sinatu zuten.

Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en la redacción dada por la Ley 4/1999, que la modifica.

2.– En lo no previsto en la presente disposición, el Consejo Vasco de Formación Continuada se regirá por lo dispuesto en los artículos 22 y siguientes de la citada Ley 30/1992, relativos a órganos colegiados.

*Artículo 10.–* Dietas y soporte administrativo.

1.– La condición de miembro de cualquiera de los órganos del Consejo Vasco que se regula en la presente disposición no dará lugar a retribución, sin perjuicio de las dietas e indemnizaciones que correspondan por razón del servicio, de acuerdo con la normativa que las regulan.

Los evaluadores externos percibirán la retribución que corresponda a su labor, de conformidad con las disposiciones vigentes.

2.– El soporte administrativo necesario para el funcionamiento del Consejo Vasco de Formación Continuada será provisto por el Departamento de Sanidad.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–* Para proceder a la acreditación de instituciones y para la emisión del certificado de actualización profesional, a que se refieren los apartados a) y c) del artículo 6.2 del presente Decreto, deberán previamente regularse, mediante Orden del Consejero de Sanidad, los requisitos y procedimientos necesarios.

*Segunda.–* Las funciones que el presente Decreto atribuye a los órganos del Consejo Vasco de Formación Continuada de las Profesiones Sanitarias se entenderán sin perjuicio de las que correspondan a otros órganos o entidades competentes en materia de Formación Profesional.

*Tercera.–* De conformidad con lo dispuesto en el artículo 8.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, antes citada, se publica, como Anexo a la presente norma, el Convenio de Conferencia Sectorial del Consejo Interterritorial del Sistema Nacional de Salud sobre Formación Continuada de las Profesiones Sanitarias, firmado el día 15 de diciembre de 1997, por los Consejeros de Sanidad de Andalucía, Aragón, Asturias, Baleares, Cantabria, Cataluña, Canarias, Castilla-La Mancha, Castilla y León, Galicia, Extremadura, Madrid, Murcia, Navarra, País Vasco, Comunidad Valenciana, y La Rioja, el Ministro de Sanidad y Consumo y la Ministra de Educación y Cultura.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Ahalmena ematen zaio Osasun sailburuari dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

*Bigarrena.*– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia-San Sebastiánen, 1999ko abuztuaren 31n.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

ERANSKINA

Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluaren Arloko Batzarraren Hitzarmena lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntzari buruz.

Hitzarmen hau sinatzen duten administrazio publikoek

ADIERAZTEN DUTE:

*Lehenengoa.*– Osasun-zientzietan gertatzen diren aurrerapen zientifiko eta teknikoek eragin nabarmena dute, batetik, asistentzia mediko-sanitarioaren antolakuntzan eta funtzionamenduan —eta asistentzia bera ondorioz gero eta konplexuagoa eta eraginkorragoa da—, eta bestetik, profesional sanitarioen prestakuntzan, batez ere medikuenean, medikuak giltzarri baitira prozesu diagnostiko eta terapeutikoetan.

Jakintza zientifikoa, prestakuntzako programen muina izan arren, oso aldakorra da, aldiro-aldiro berritu behar izaten da eta gutxi irauten du. Sistema pedagogikoak, denik eta bikainenak ere, ezin die graduatuei ziurtatu gaitasun profesional goren behin betikoa. Horretaz gainera, asistentzian gertatzen ari den aldaketak, hau da, giza baliabideen eta baliabide materialen eraginkortasuna areagotzeak, etengabeko prestakuntzaren garrantzia azpimarratzen du. Kontuan hartzeko beste alderdi batzuk hauexek dira: herrialde batean ager daitezkeen prozesu patologiko berriak; gaixotasunen erikortasunean, prebalentzian eta agerpenetan izaten diren aldaketak; eta prozesu patologiko batzuen prozedura diagnostiko eta terapeutikoak sistematizatu beharra, gero eta beharrezkoagoa dena eta gastu handiak murrizten dituena. Ez dira ahaztu behar, bestalde, osasunaren prebentzioko jarduerek izan duten aurrerakada eta gizartearen eskari asistentziala, gizarteak gero eta zerbitzu sanitario hobeak eskatzen dituelako.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se autoriza al Consejero de Sanidad para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para su desarrollo y aplicación.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Donostia-San Sebastián, a 31 de agosto de 1999.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

ANEXO

Convenio de Conferencia Sectorial del Consejo Interterritorial del Sistema Nacional de Salud sobre formación continuada de las profesiones sanitarias.

Las Administraciones Públicas que suscriben el presente Convenio

EXPONEN:

*Primero.*– Que el incesante progreso científico y técnico que se está produciendo en las ciencias de la salud tiene una influencia fundamental en la organización y funcionamiento de la asistencia médico-sanitaria, cada vez más compleja y eficaz, y en la formación de los profesionales sanitarios, especialmente en los médicos por su papel central decisorio en los procesos diagnósticos y terapéuticos.

Los conocimientos científicos, aun constituyen el núcleo principal de los programas formativos, tienen una vida relativamente corta y necesitan sustituirse o renovarse adecuadamente con intervalos regulares. Ningún sistema pedagógico, por bueno que sea, puede asegurar a sus graduados una alta competencia profesional indefinidamente. La formación continuada se justifica también por los cambios que se están produciendo en los sistemas de prestación de la asistencia que tienden a lograr una mayor eficiencia en los recursos humanos y materiales que intervienen en dicha asistencia. También hay que considerar los procesos patológicos nuevos que aparecen en un país, los cambios en la morbilidad, prevalencia y manifestaciones de las diversas enfermedades así como la necesidad, cada vez mayor, de sistematización de los procedimientos diagnósticos y terapéuticos de ciertos procesos patológicos, que engendran gastos importantes al faltar dicha sistematización. Igualmente hay que considerar el rápido desarrollo de actividades preventivas de salud, así como el incesante aumento de la demanda asistencial de una sociedad que es, cada vez, más exigente con la calidad de los servicios sanitarios.

Medikuntzako profesionalen prestakuntzan, gurea bezalako herri garatuetan, unibertsitateko ikasketak eta prestakuntza espezializatua ez ezik etengabeko eguneratze jarduerak ere beharrezkoak diren moduan, gauza bera esan behar da gainerako lanbide sanitarioen gainean, horietan guztietan ere nahitaezkoa baita etengabeko prestakuntza.

*Bigarrena.–* Etengabeko prestakuntza ez da profesionalen titulu-pilaketa hutsa, eta ezin da beraz nahitaezkotzat jo, ezpada ere borondatezkotzat, zeren eta norbanakoen askatasunean oinarrituriko motibazioa baita horren eragile nagusia. Etengabeko prestakuntzarako motibazio behinena, bada, barnekoa da: profesional bakoitzaren baitan sortzen den jarrera intelektual etengabea, urtez urte graduatu-aurreko prestakuntzan bereganatzen dena. Horrek ez du esan nahi, ordea, kanpo-motibazioak kontuan hartu behar ez direnik, esaterako, prestakuntza-mota horretako jarduerak egiteko erraztasunak edo etengabeko prestakuntzak sistema asistentzial batean izan behar dituen ondorio administratibo eta sozialak, sistema horrek noiz edo noiz karrera profesional bat sortu behar baitu.

Garrantzitsua izan arren, etengabeko prestakuntza prestakuntza arautu gabetzat jotzen da, eta, beraz, edozein agentek —publikok nahiz pribatuk— aukera du prestakuntza-sistemak ezartzeko, horien betebeharrak ezartzeko eta bere kasa kreditazioak emateko. Eta horretantxe jarri behar dute administrazio publikoek beren ardura, hots, profesional sanitarioei eskaintzen zaizkien etengabeko prestakuntzako jardueren kalitatea zaintzean. Horretarako biderik onena kreditazio-sistema borondatezkoak ezartzea da: autonomia erkidego batzuetan dagoeneko abian dira, eta sistemon balioa eta eraginkortasuna hazi egingo da haien konfigurazioa eta esparrua handitu ahala eta beste administrazio publiko guztiek parte hartzen duten neurrian.

*Hirugarrena.–* Hori guztia aintzat hartuta, Autonomia Erkidegoetako Osasun eta Sanitate kontseilariak, Osasun eta Kontsumo ministroa eta Hezkuntza eta Kultura ministroa bat datoz Osasun Sistema Nazional osorako baliagarria izango den borondatezko kreditazio-sistema bat ezartzeko, administrazio publiko guztien lankidetza eta elkarlan eraginkorrean oinarritua.

Ondorioz, Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluak, Madrilen 1997ko abenduaren 15ean egindako osoko bilkuran, Arloko Batzarraren Hitzarmen hau sinatzea erabaki zuen, honako lege-xedapenetan ezarritakoari jarraituz: Sanitateko Lege Orokorraren 7., 18., 47. eta 104. artikuluak; Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 5. eta 8. artikuluak, eta Kontseiluaren Barne Araubidearen Araudiko 7. artikulua. Hona hemen Hitzarmenaren

Si la información de los profesionales de la medicina, en países desarrollados como el nuestro, no puede limitarse a los estudios universitarios y a la formación especializada, sino que ha de completarse con actividades periódicas de actualización de la competencia en el marco de la formación médica continuada, similar consideración es posible efectuar respecto del resto de las profesiones sanitarias, pues la formación continuada es necesaria en todas ellas.

*Segundo.–* Que la formación sanitaria continuada no constituye una retitulación, por lo que no puede ser considerada obligatoria, sino de carácter voluntario, ya que la motivación para la misma ha de ser personal, respetando la libertad individual. La mejor motivación para la formación sanitaria continuada es, sin duda, la interna, la que surge en cada profesional como una predisposición intelectual permanente que ha debido ser adquirida durante los años de formación pregraduada. No obstante, es preciso contemplar otras motivaciones externas, que van desde las facilidades para realizar las actividades propias de este tipo de formación hasta las consecuencias, tanto administrativas como sociales, que la formación continuada ha de tener en un sistema asistencial que debe desarrollar, en su momento, una carrera profesional.

A pesar de su importancia, la formación continuada no está configurada como una formación reglada, lo que posibilita que en cualquier agente, público o privado, pueda establecer sistemas de formación y sus correspondientes requisitos de acreditación y realización de actividades. Las Administraciones Públicas tienen, no obstante, la responsabilidad de asegurar la calidad de las múltiples actividades de formación que se ofertan a los profesionales sanitarios. El mejor camino para obtener ese fin es el establecimiento de sistemas voluntarios de acreditación, ya implantados por algunas Comunidad Autónomas, cuyo valor y eficacia se potenciará cuanto más general sea su configuración y su ámbito y en tanto esté abierto a la participación de todas las Administraciones Públicas.

*Tercero.–* Que conscientes de la importancia de todo ello, los Consejeros de Sanidad y Salud de las Comunidades Autónomas junto con el Ministro de Sanidad y Consumo y la Ministra de Educación y Cultura convienen en establecer un sistema de acreditación válido para todo el Sistema Nacional de Salud, basado en la coordinación y en la colaboración eficaz entre todas las Administraciones Públicas.

En su virtud, y conforme a las previsiones de los artículos 7, 18, 47 y 104 de la Ley General de Sanidad, de los artículos 5 y 8 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y del artículo 7 de su Reglamento del Régimen Interior, el Consejo Interterritorial del Sistema Nacional de Salud, en sesión plenaria celebrada en Madrid el día 15 de diciembre de 1997, acuerda suscribir el presente Convenio de Conferencia Sectorial, con sujeción a las siguientes

KLAUSULAK:

*Lehenengoa.–* Osasun Sistema Nazionalaren (OSN) Etengabeko Prestakuntzako Batzordea sortzen da. Bere eginkizuna autonomia erkidegoetako sanitate eta osasun kontseilaritzak, Kontsumo eta Osasun Ministerioa eta Hezkuntza eta Kultura Ministerioa koordinatzea izango da, lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntzaren alorrean.

OSNren Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak Lurraldearteko Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren izaera eta ezaugarriak izango ditu, Barne Araubidearen Araudiko 8. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Batzordearen jarduerak eta erabakiak Autonomia Erkidegoetako Osasun eta Sanitate Kontseilaritzen administrazio organoen bitartez garatu eta gauzatuko dira. Jarduerak eremu zabalagoa hartzen duelako hala komeni denean, eta beti ere Batzordearen oniritziarekin, funtzio horiek Osasun eta Kontsumo Ministerioko administrazio organoek bete ahalko dituzte.

*Bigarrena.–* OSNren Etengabeko Prestakuntzako Batzordea ordezkari hauek osatuko dute: autonomia erkidegoetako ordezkari banak, Osasun eta Kontsumo Ministerioko ordezkari batek, eta Hezkuntza eta Kultura Ministerioko beste batek.

Bere jardunean, Batzordeak men egin beharko dio kide anitzeko organoei buruz Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluan xedatutakoari.

Batzordeak bere Barne Araubidearen Araudia sortu ahal izango du, eta lehendakari bat eta lehendakariorde bat izendatuko ditu bere kideen artean. Lurraldearteko Kontseiluko Idazkaritzako funtzionario batek idazkari-lana egingo du eta, gainera, laguntza tekniko-administratiboa emango du; hitzarekin baina botorik gabe jardungo du.

Batzordean, aztertzen den alorreko prestakuntzan aditua den izen handiko pertsona batek, alor horretako talde profesionaleko kideak, parte hartuko du, hitzarekin eta botoarekin. Batzordearen eginkizuna orokorra denean edo berariaz Etengabeko Prestakuntza Medikoko Programa garatzen duenean, pertsona hori Medikuen Elkargoen Kontseilu Nagusiko lehendakaria izango da, edo horrek izendatzen duen ordezkoa. Halaber, Batzordearen bileretan parte hartuko dute, hitzarekin baina botorik gabe, Batzordeak berak deituriko adituek eta, edozein kasutan, Espezialitate Medikoen Kontseilu Nazionaleko ordezkariek, zientzi elkarteetakoek eta unibertsitatekoek.

CLÁUSULAS:

*Primera.–* Se crea la Comisión de Formación Continuada del Sistema Nacional de Salud (SNS) para la coordinación de las Consejerías de Sanidad y Salud de las Comunidades Autónomas y de los Ministerios de Sanidad y Consumo y de Educación y Cultura en materia de formación continuada de las profesiones sanitarias.

La Comisión de Formación Continuada del SNS tendrá la consideración y el carácter de Comisión Permanente del Consejo Interterritorial, de acuerdo con lo previsto en el artículo 8 de su Reglamento de Régimen Interior.

Las funciones y acuerdos de la Comisión se desarrollarán y ejecutarán a través de los órganos administrativos de las Consejerías de Sanidad y Salud de las Comunidades Autónomas. Previo acuerdo de la Comisión y cuando el ámbito territorial de la actividad así lo aconseje, esas funciones podrán ser desarrolladas por los órganos administrativos del Ministerio de Sanidad y Consumo.

*Segunda.–* La Comisión de Formación Continuada del SNS estará compuesta por un representante de cada una de las Comunidades Autónomas y por un representante de cada uno de los Ministerios de Sanidad y Consumo y de Educación y Cultura.

Su funcionamiento se atendrá a los preceptos que, sobre órganos colegiados, se contienen en el capítulo II del título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La Comisión podrá elaborar su Reglamento de Régimen Interior y designará, de entre sus miembros, al Presidente y Vicepresidente. Las funciones de Secretario, que tendrá voz pero no voto, serán desempeñadas por un funcionario de la Secretaría del Consejo Interterritorial que, asimismo, prestará el apoyo técnico-administrativo necesario para su funcionamiento.

Se incorporará a la Comisión, con voz y voto en sus reuniones, una personalidad de reconocido prestigio en materia de formación, perteneciente al colectivo profesional que en cada caso se trate. Cuando la Comisión ejerza funciones de carácter general o cuando desarrolle específicamente el Programa de Formación Médica Continuada, dicha personalidad será el Presidente del Consejo General de Colegios Médicos o la persona en quien delegue. Asistirán, asimismo, a las reuniones de la Comisión, con voz pero sin voto, los expertos que la propia Comisión acuerde convocar y, en todo caso, representantes del Consejo Nacional de Especialidades Médicas, de las Sociedades Científicas y de las Universidades.

Beste lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntzako programa berariazkoak aztertzen direnean, Batzordeak erabakiko du zein profesionalek parte hartu beharko duten, lehen adierazitako irizpideetan oinarrituta.

*Hirugarrena.–* Hauek izango dira OSNren Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen eginkizunak:

1.– Irizpide orokor eta gutxienekoak ezartzea, irakaskuntzako zentro edo unitateek, sanitarioek edo administratiboek, euren titularren eskariz, etengabeko prestakuntza sanitarioko jarduerak egiteko kreditazioa jaso dezaten. Kreditazioak Osasun Sistema Nazional osoan izango du balioa.

2.– Irizpide orokor eta gutxienekoak ezartzea, pertsona edo erakunde antolatzaileen eskariz, prestakuntzako jarduerek balorazio bat (kreditu-ordutan) eta kreditazioa jaso ditzaten. Horiek Osasun Sistema Nazional osoan izango dute balioa.

3.– Lanbide sanitarioen espezialitate bakoitzean, etengabeko prestakuntzaren alorrak eta eduki materialak eta lehentasunezko kreditazioak definitzea. Baita ere, lanbide bateko espezialitate bat baino gehiago hartzen dituzten enborreko irakasgaiena edo lanbide bat baino gehiago hartzen dituztenena; eta profesional sanitarioek aldi bakoitzean eduki behar dituzten gaien proportzioa.

4.– Irizpide orokor eta gutxienekoak ezartzea, lanbideen eguneratze ziurtagiriak emateko hala eskatzen duten profesionalei, baldin kreditu-ordu kopuru nahikoa eta bestelako baldintzak betetzen badituzte. Ziurtagiriok balio-epe bat izango dute.

5.– Kreditatutako zentroen eta jardueren auditoria, ebaluazioa eta kontrola egiteko, autonomia erkidegoek dituzten planak eta jarduerak koordinatzea.

6.– Etengabeko prestakuntza Osasun Sistema Nazionalean finantzatzeko dauden azterketak, proposamenak eta txostenak Lurraldearteko Kontseiluaren Osokoan aurkeztea.

*Laugarrena.–* Hitzarmen honek OSNren Etengabeko Prestakuntzako Batzordeari etengabeko prestakuntzaren alorrean esleitzen ez dizkion funtzioak autonomia erkidegoetako organo eskudunen esku geratuko dira, bereziki funtzio hauek:

1.– Zentroen, jardueren eta profesionalen kreditazioa antolatzea eta kudeatzea; baita informazio eta erregistro sistemak antolatzea eta kudeatzea ere.

2.– Etengabeko prestakuntza sanitarioaren sistema ebaluatzea eta kreditatutako zentroak eta jarduerak

Cuando se trate de programas específicos de formación continuada de otras profesiones sanitarias, la propia Comisión, atendiendo a los criterios antes indicados, determinará los profesionales que se incorporarán a la misma.

*Tercera.–* Corresponderá a la Comisión de Formación Continuada del SNS el desarrollo de las siguientes funciones:

1.– El establecimiento de los criterios generales, comunes y mínimos para que los centros o unidades docentes, sanitarios o administrativos, a solicitud de la entidad titular de los mismos, puedan recibir una acreditación, válida en todo el Sistema Nacional de Salud, para desarrollar actividades de formación sanitaria continuada.

2.– El establecimiento de los criterios generales, comunes y mínimos para que actividades concretas de formación, a solicitud de las personas o entidades organizadoras de las mismas, pueden recibir una acreditación y una valoración en horas-crédito, válidas en todo el Sistema Nacional de Salud, de tales actividades.

3.– La definición de las áreas y contenidos materiales de desarrollo y acreditación preferente para la formación continuada en cada una de las distintas especialidades y profesiones sanitarias, y de las materias troncales que abarquen a distintas especialidades de una misma profesión o a varias profesiones, así como la proporción de las mismas que, en cada período, ha de reunir el profesional sanitario.

4.– La determinación de los criterios generales, comunes y mínimos, para que los profesionales que lo soliciten, y que reúnan los requisitos de horas-crédito y demás que se determinen, puedan recibir un certificado de actualización profesional cuya validez temporal será determinada en cada caso.

5.– La coordinación de los planes o actuaciones de las Comunidades Autónomas para la auditoría, evaluación y control de los centros y actividades acreditadas.

6.– La elevación al Pleno del Consejo Interterritorial de los estudios, informes y propuestas que resulten procedentes en relación con la financiación de la formación continuada en el Sistema Nacional de Salud.

*Cuarta.–* Las Comunidades Autónomas, a través de los órganos en cada caso procedentes, ejercerán todas las funciones, en materia de formación continuada de las profesiones sanitarias, que no se encomiendan expresamente en este Convenio a la Comisión de Formación Continuada del SNS, y especialmente las siguientes:

1.– La organización y gestión de las acreditación de centros, actividades y profesionales, así como de los sistemas de información y registro.

2.– La evaluación del sistema de formación sanitaria continuada y la inspección y auditoría de centros y

ikuskatzea eta horien auditoria egitea. Baita estatistika azterketak egitea ere, gero horien emaitzak, aldiro-aldiro, OSNren Etengabeko Prestakuntzako Batzordean aurkezteko.

3.– Taxuz jakinaraztea kreditazioa zein modutan eta zein administrazio organori eska dakiokeen eta zein irizpide erabiliko diren, interesaturik daudekeen erakunde, partikular eta profesional guztiak jakinaren gainean egon daitezen. Informazioaren zabalkundea ahalik eta bide egokienak erabiliz egingo da.

*Bosgarrena.–* Hitzarmen hau indarrean jarri orduko, OSNren Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak berehala ekingo dio Etengabeko Prestakuntza Medikoko programari.

Programa hori garatzeko, Batzordeak kontuan hartuko ditu alor horretan autonomia erkidegoetako organo eskudunek, Sanitateko Eskola Nazionalak eta erkidegoetako erakunde baliokideek eta osasun zerbitzuek egiten dituzten jarduerak eta proposamenak.

Batzordeak, halaber, aintzat hartuko ditu beste hainbat erakunderen proposamenak eta txostenak: elkargoenak, Espezialitate Medikoen Kontseilu Nazionalenak eta espezialitate bakoitzeko Batzorde Nazionalenak, zientzia elkarteenak eta unibertsitateenak. Proposamenok eta txostenok Osasun Sistema Nazionalaren Etengabeko Prestakuntzako Batzordean erakunde horiek duten ordezkaritzaren bitartez aurkeztuko dira.

Batzordeak zuzenean edo zeharka etengabeko prestakuntza medikoaren alorrean diharduten elkarteek, zientzia akademiek, sindikatuak eta erakunde eta pertsonek egiten dituzten proposamenak eskatu eta jaso ahalko ditu.

*Seigarrena.–* Beste lanbide sanitarioetako etengabeko prestakuntzako programak arian-arian garatuko dira, kasuan kasuko etengabeko prestakuntza-motan diharduten elkargo, sindikatu, zientzia elkarte, elkarte profesional edo gainerako erakundeek, edo autonomia erkidegoek, egiten dituzten azterketa eta txostenak kontuan hartu ondoren.

*Zazpigarrena.–* Hitzarmen honen indarraldia sei urtekoa izango da, 1998ko urtarrilaren 1etik hasita. Indarraldia zuzenean luzatuko da beste sei urtez, baldin sinatzaileetako batek ez badu, gutxienez sei hilabete aurretik, Hitzarmenaren amaiera espresuki iragartzen.

*Zortzigarrena.–* 30/1992 Legearen 8.2 artikuluan xedatutakoa betez, Hitzarmen hau, behin formalizatuz gero, Senatuari jakinaraziko zaio, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean eta autonomia erkidegoetakoetan argitaratuko da.

actividades acreditados, así como la realización de estudios estadísticos, cuyos resultados serán presentados de forma periódica a la Comisión de Formación Continuada del SNS.

3.– La difusión, a través de los medios que se estimen adecuados para conocimiento de las entidades, particulares y profesionales interesados, de los criterios aprobados y de las formas y órganos administrativos ante los que se podrá solicitar la acreditación.

*Quinta.–* A la entrada en vigor de este Convenio, la Comisión de Formación Continuada del SNS iniciará de manera inmediata los trabajos relativos al programa de Formación Médica Continuada.

Para el desarrollo de dicho programa, la Comisión tomará en consideración las actuaciones y propuestas que, en esta materia, realicen o desarrollen los órganos competentes de las Comunidades Autónomas, la Escuela Nacional de Sanidad y las instituciones equivalentes de las Comunidades y de los Servicios de Salud.

La Comisión tomará, asimismo, en consideración las propuestas e informes que efectúen los Colegios Profesionales, el Consejo Nacional de Especialidades Médicas y las Comisiones Nacionales de cada especialidad, las sociedades científicas y las Universidades. La presentación de tales informes y propuestas se articulará a través de los representantes de estas corporaciones, organismos y asociaciones incorporadas a la Comisión de Formación Continuada del Sistema Nacional de Salud.

La Comisión podrá solicitar y recibir informes y propuestas de las organizaciones sindicales, de las academias científicas y de cuantas personas, entidades, organismos o instituciones actúen, directa o indirectamente, en el campo de la formación médica continuada.

*Sexta.–* Los programas de formación continuada en otras profesiones sanitarias se desarrollarán de forma progresiva y atendiendo a las propuestas, estudios e informes que realicen las Comunidades Autónomas o que se elaboren por los correspondientes colegios, sindicatos, asociaciones científicas o profesionales y demás entidades o instituciones que actúen en el ámbito de la formación continuada de la correspondiente profesión.

*Séptima.–* Este Convenio tendrá una vigencia de seis años a partir del 1 de enero de 1998 y se prorrogará automáticamente por períodos de seis años, salvo denuncia expresa de alguna de las partes firmantes efectuada con una antelación de seis meses a la fecha de su expiración.

*Octava.–* Conforme a lo previsto en el artículo 8.2 de la Ley 30/1992, este Convenio, una vez formalizado, se notificará al Senado y se publicará en el «Boletín Oficial del Estado» y en los Diarios Oficiales de las Comunidades Autónomas.

Eta euren adostasuna adierazteko, Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluan ordezkatuta dauden administrazio sanitarioak eta Hezkuntza eta Kultura ministroa Hitzarmen honi atxikitzen zaizkio, bidezko protokoloa sinatuz.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### OSASUN SAILA

### Zk-4007

830/1999 EBAZPENA, abuztuaren 31koa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzan goi kargudunaren idazkariaren lanpostua betetzeko Begoña Pinedo Testa andrea izendatzen duena.

Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzan goi kargudunaren idazkariaren lanpostua betetzeko deialdia ikusi da. Deialdi hori zuzendaritza nagusi honen uztailaren 9ko 663/1999 Ebazpenaren bitartez egin zen eta EHAAren 140 zenbakian argitaratu zen, 1999ko uztailaren 23koan alegia.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak agertu dituen agiriak aztertu dira, bere baldintza profesionalak curriculum vitae-n jasotako merezimenduen arabera baloratuz.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Begoña Pinedo Testa andrea deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko dohain egokiak dituela ikusi da.

Hori dela eta, zuzendaritza nagusi honek hauxe

EBATZI DU:

*Lehenengoa.*– Begoña Pinedo Testa andrea Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzan goi kargudunaren idazkari izendatzea.

*Bigarrena.*– Karguaz jabetzea formalizatzen den unean hartuko du indarra, ekonomikoa eta administratiboa, izendapen honek.

En prueba de conformidad, las Administraciones sanitarias representadas en el Consejo Interterritorial de Sistema Nacional de Salud y la Ministra de Educación y Cultura se adhieren al presente Convenio, mediante la suscripción del correspondiente protocolo.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### N°-4007

RESOLUCIÓN 830/1999, de 31 de agosto, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se nombra a Dña. Begoña Pinedo Testa para desempeñar el puesto de Secretaria Alto Cargo en la Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Vista la convocatoria para cubrir el puesto de Secretaria Alto Cargo en la Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicada en el BOPV n.º 140, de 23 de julio de 1999, mediante Resolución n.º 663/1999, de 9 de julio, de esta Dirección General.

Resultando que finalizado el plazo de presentación de solicitudes, ha sido estudiada la documentación presentada por el único aspirante al desempeño del puesto de que se trata, habiéndose valorado sus condiciones profesionales conforme a los méritos aportados en el «Curriculum Vitae».

Considerando que, a la vista de la documentación presentada, Dña. Begoña Pinedo Testa se adecua al perfil del puesto convocado y posee la cualificación idónea para el desempeño del mismo.

En virtud de cuanto antecede, esta Dirección General,

RESUELVE:

*Primero.*– Nombrar a Dña. Begoña Pinedo Testa como Secretaria Alto Cargo en la Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

*Segundo.*– El presente nombramiento surtirá efectos económicos y administrativos desde la formalización de la toma de posesión.